

ARGAZIAK: JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS



ko erreinua



tia, beste belarrekin nahastuta edozer sendatzeko balio dezake.

Sendagarri naturalek beti funtzionatzen dute, eta galkortasun amaigabeko produktuak dira», esan zuen Merinok. Materiala garestia denez, argizaio-

la lantzen duen jende askorik ez dagoela gaineratu zuen.

Asteburua igaro ostean, herritarrek zutoihalak eta jantziak gorde zituzten. Hala ere, Erriberriko herriak oraindik luzaroan historiaren oroigarri izaten jarraituko du.



Erdi Aroko hiri bilakatu zen asteburuan Erriberri. Kaleek ez ezik herritarrek ere garaiko arropak jantzi zituzten.

ERDI AROKO AZOKAK

Artisautzaren defentsan

Erriberrin bezala, Artaxonan eta Artziniegan izan dira Erdi Aroko azokak iragan asteburuan. Nafarroako Gobernuak eta Jaurlaritzaren turismo bulegoak emandako informazioaren arabera, irailaren 7an Garesen, 8an San Adrianen eta 28an Gasteizko Alde Zaharrean izango dira hurrengo azokak.

90eko hamarkadan izan zuten garapen handia Erdi Aroko azokek. Nafarroan, 1962tik egiten den Obanosko Misterioa izan daiteke histo-

rialari batzuen aburuz jai eta azoka hauen bultzatzailea.

Euskal Herrian azoka hauen eragile nabarmenen artean Napar Bideak elkartea aipatu behar da. 1994an sortua da. Geroztik, Euskal Herrian egiten diren «antzinako azoken» antolaketa eramaten du. Euskal Herriko artisau produktuen defentsa eta sustapena du helburutzat, eta hainbat ekoizle parte hartzen dute bertan. Nafarroako kooperatiba honek «antzinako azokak» produktu bezala eskaintzen dizkio udalerriari, eta zuzeneko salmenta du lan ardatz bezala.



Erdi Aroko azokan, artisau produktuak ikusi eta erosteko aukera ere izan zen. 75 artisauk mota guztietako produktuak saldu zituzten: txorizoa, pateaa...